## ZUMAIAKO UDALA

*Gaia: Bide publikoan ibiak jartzea arautzen duen ordenantzari behin betiko onespena ematea.*

2010eko martxoaren 12an Udal Batzak, bide publikoan ibiak jartzea arautzen duen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena eman zion.

Ordenantza hori 30 eguneko apean jendaurrean jarri zen, 2010eko apirilaren 7ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdun aldetik inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aipatu ordenantza behin betiko onartutzat ematen da.

Beraz, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testu osoa.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurreko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko apean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte.

Zumaia, 2010eko maiatzaren 27a.—Iñaki Agirrezabalaga Alkorta, Alkatea.

(870) (6646)

ERANSKINA

### IBIEN UDAL ORDENANTZA ERREGULATZAILEA

### ATARIKO TITULUA

Ordenantza honen xedea, Zumaiako udal mugartean ibien ordenazioa da, bai eta berau eman dezaten lizentzien indar eta iraupen baldintzena ere.

Espaloietatik zehar ibilgailuak sartzeagatiko eta edozein motatako merkantzien aparkaleku esklusibo, karga edo deskargarako bide publikoaren erreserbagatiko tasa erregulatzen duen Ordenantzaren bidez osatzen da Ordenantza hau eremu fiskalean.

### I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Ibia partikularrei bide publikoaren gainean emandako baimena da, espaloiaren eta zintarriaren egitura aldatzea ekar dezakeena, ibilgailuen pasabidea uzteko higiezinetara eta higiezinetatik eta edozein eratako salgaiak kargatzeko eta deskargatzeko.

*2. artikulua.*

Ibien eraiketak ez ditu gutxituko bide publikora iristeko baldintzak.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Asunto: Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza de vados en la vía pública.*

El Pleno municipal en sesión de fecha 12 de marzo de 2010, aprobó inicialmente la modificación de la Ordenanza reguladora de vados en la vía pública.

Dicha Ordenanza quedó sometida a información pública durante 30 días mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 7 de abril de 2010, y al no haber sido presentada alegación o reclamación alguna, la citada Ordenanza queda definitivamente aprobada.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de la Ordenanza.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de publicación del presente anuncio. En ese caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición o hasta su desestimación presunta.

Zumaia, a 27 de mayo de 2010.—El Alcalde, Iñaki Agirrezabalaga Alkorta.

(870) (6646)

ANEXO

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE VADOS

### TITULO PRELIMINAR

Es objeto de la presente Ordenanza, la ordenación de los vados en el término municipal de Zumaia, así como de las condiciones, vigencia y duración de las licencias que se concedan.

Esta Ordenanza se complementa en el ámbito fiscal, por la Ordenanza reguladora de tasa por entrada de vehículos a través de las aceras y reserva de vía pública para aparcamiento exclusivo, carga o descarga de mercancías de cualquier clase.

### TITULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.º*

Vado es toda autorización sobre la vía pública concedida a particulares, que puede suponer modificación de la estructura de la acera y del bordillo, con la finalidad de permitir el paso de vehículos a y desde los inmuebles, así como para carga y descarga de mercancías de cualquier clase.

*Artículo 2.º*

La construcción de vado no disminuirá las condiciones de accesibilidad de la vía pública.

*3. artikulua.*

Finken eta negozio lokalen jabeek edo maizterrek eska dezakete ibi lizentzia eta berauen titular izan daitezke.

Ibi lizentziak ekartzen dituen obligazio guztien erantzulea, beronen titularra izango da beti.

*4. artikulua.*

Ibien lizentzia alkatetzako erabakiaren bidez emango da edo honek eskuordetutako organoaren bidez, Hirigintza batzordearen aldez aurreko txostenarekin, baina beti prekarioan eta gainontzekoen kalterik gabe, Ordenantza Fiskaletan ezarritako dagokion tasa sortuz.

Lizentzia eskaera aurkeztu denetik hilabeteko epea igaro bada ebazpena adierazi gabe, lizentzia ukatutzat joko da.

*5. artikulua.*

Ibi lizentziak ez du eskubide subjektiborik sortzen, titularrak hau ezabatu eta espaloia eta zintarria bere aurreko egoeran eta bere kontura utzi beharko duelarik, Udalak hori egin dezan eskatzen dionean.

*6. artikulua.*

Ibian ezarritako ordutegiaren barruan, ezingo da bertan ibilgailurik aparkatu edo geratu ezta ibiaren titularraren ibilgailua ere.

*7. artikulua.*

Ibiak erabilera iraunkorrerako edo ordukako erabilerarako eman ahal izango dira.

Ibi iraunkorraren eta ordukako ibiaren ezaugarriak bereizgarri batean agertuko dira, zeinaren eredua Udalaren ofiziala izango den eta honek emandakoa, lizentzia ematen den une berean.

Erabilera iraunkorreko ibiek, ibilgailuen igarotzea baimenduko dute egunaren 24 orduetan zehar.

Ordukako erabilerarako ibiek, ibilgailuen igarotzea baimenduko dute gehienez eguneko 12 orduetan zehar, behar bezala justifikatutako salbuespenak izan ezik.

Ibiaren erabilera orduak Udalak seinalatuko ditu interesatutako pertsonen eskariz.

Ordukako ibiaren erabilerak ez ditu larunbat arratsaldeak eta jaiegunak hartzen, beharrezko balioesten den kasuetan izan ezik.

*8. artikulua.*

3.500 kg baino karga txikiagoko ibilgailu turismo edo furgonetentzako gutxienezko azalera librea, 20 m²/ibilgailuko izango da.

3.500 kg baino karga handiagoko kamioi edo furgonetentzako gutxienezko azalera librea, 40 m²/ibilgailuko izango da.

## II. TITULUA

## LIZENTZIA EMAKIDAREN PROZEDURA

*9. artikulua.*

Ibi lizentzia lortzeko, eskatzaileek ondorengoa kreditatu beharko dute:

*Artículo 3.º*

Podrán solicitar licencia de vado y ser titulares de las mismas, los propietarios o arrendatarios de fincas y de locales de negocio.

El responsable de cuantas obligaciones implique la licencia de vado, será siempre el titular de la misma.

*Artículo 4.º*

La concesión de licencia de vado será concedida mediante resolución de Alcaldía u órgano en quien delegue previo informe de la Comisión de Urbanismo, siempre en precario y sin perjuicio de terceros, dando lugar al devengo de la correspondiente tasa establecida en las Ordenanzas Fiscales.

Si transcurriese un mes desde la presentación de la solicitud sin haber recaído resolución expresa, la licencia se entenderá denegada.

*Artículo 5.º*

La licencia de vado no crea ningún derecho subjetivo, debiendo el titular suprimirlo y reponer la acera y bordillo a su anterior estado y a su costa, cuando así lo requiera el Ayuntamiento.

*Artículo 6.º*

No está permitido en ningún caso el establecimiento de vehículos sobre vado, ni siquiera el perteneciente al titular del mismo, dentro del horario concedido en el vado.

*Artículo 7.º*

Los vados podrán concederse para uso permanente o para horario determinado.

Las características del vado permanente y del vado horario figurarán en un distintivo cuyo modelo será oficial del Ayuntamiento, entregado por éste inmediatamente a la concesión de la licencia.

Los vados de uso permanente permitirán el paso de vehículos durante las 24 horas del día.

Los vados de uso horario permitirán el paso de vehículos durante 12 horas diarias como máximo, salvo excepción debidamente justificada.

Las horas de uso del vado se señalarán por el Ayuntamiento a solicitud de las personas interesadas.

El uso de vado horario no alcanza los sábados por la tarde y días festivos, salvo en los casos en que se estime oportuno.

*Artículo 8.º*

Se considera como superficie libre mínima para vehículos turismos o furgoneta de carga inferior a 3.500 kg la de 20 m²/vehículo.

La superficie libre mínima para camiones y furgonetas de carga superior a 3.500 kg Será de 40 m²/vehículo.

## TITULO II

## PROCEDIMIENTO DE CONCESION DE LICENCIA

*Artículo 9.º*

Para obtener la licencia de vado las personas solicitantes deberán acreditar:

9.1. Merkatal edo industri jarduera batetara dedikatutako lokalen eta ibilgailuen kasuan:

a) Burutzen duten jarduera egikaritzeko jarduerarako udal lizentzia edukitzea.

b) Jarduera honen izaerak derrigorrez ibilgailuen sarrera eta irteera exijitzea.

c) Eskabideak ibia ezarri nahi den denboraldia modu zehatzean edukitzea, Ordenantza honen 7. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

d) Ordenantza honen 8.artikuluaren arabera, espazio nahikoa eta iraunkorki librea edukitzea eta beste destinorik gabe, jardueraren biltegiko karga eta deskargari lotutako ibi bat denean, izan ezik.

9.2. Ibilgailuen garajea:

a) Ibilgailuen garaje jardueratzat hartzen da, hiru ibilgailu edo gehiago gordetzeko ahalmena duena.

b) Ibilgailuak gordetzeko jarduerarako udal lizentzia edukitzea, salbuetsitako jardueren 165/99 Dekretuaren arabera.

c) 3.500 kg baino karga txikiagoko hiru ibilgailu edo furgoneta baino gehiagorentzat edo karga gehiagoko kamioi batentzako azalera librea edukitzea.

Beharrezkoa izango da lokalaren okupazio iraunkorra ibilgailu guztiekin.

d) Ordenantza hau onartu aurretik ibia duten garajeak, aparkatzeko edo garaje jarduerarako udal lizentziarekin, beraien beharren arabera, ibia eska dezakete beti ere Ordenantza honetan eta segurtasuna arautzen duen arautegian ezarritakoa betetzen denean.

9.3. Aurreko artikuluetan aurreikusten ez diren kasuetan, ibiak, iraunkorrak nahiz ordukako erabilerakoak, eman ahal izango dira interesatuak aldez aurretik eskatuta. Horretarako Txosten Teknikoa ikusi beharko da eta gauzatzen den jardunbidea, sortutako beharra, kokapena eta salbuespen izaera kontuan izan beharko dira. Ibiak emateko eskumena alkatearena izango da, edota Gobernu Batzordearena eskuordetze kasuetan.

9.4. Ibilgailuen gordelekua familia bakarreko etxebizitzetan.

Familia bakarreko etxebizitzen kasuan, gutxienezko azalera librearen derrigorrezkotasuna salbuetsi ahal izango da, lizentzia eman daitekeelarik, garajearen edukiera edozein izanik ere.

9.5. Ibilgailuen gordelekua gune historikoko eraikinetan.

Zumaiako Arau Subsidiarioen artikulatuaren arabera, oro har, ez da garaje pribaturako erabilera onartuko.

*10. artikulua.*

Udalak ibiak eman ahal izango ditu zentro ofizialak eta Estatuaren menpekoak direnean, Autonomi Elkartea, Probintzia edo Udalerria, Entitate eta Erakundeak eta Osasun eta Asistentzi Zentroak, kasu bakoitzean eman daitezken interes orokor eta publikoko arrazoiengatik eta aldez aurretik aipatu Organismoek eskabidea egin ondoren.

*11. artikulua.*

Lizentzia eskatuz egindako instantzia, ondorengo dokumentuez lagundurik bideratuko da:

a) Lokala aipatzen den erabilerara dedikatzeko udal lizentziaren jabe izatearen frogagiria.

b) Eskatzailearen aitorpena, lokala instantzian aipatutakoez gain beste jarduer etarako ez erabiltzeko konpromisoa hartuz.

9.1. En los locales y para vehículos dedicados a una actividad comercial o industrial:

a) Que se disponga de licencia municipal de actividad para el ejercicio de la actividad que realizan.

b) Que la índole de esta actividad exija necesariamente la entrada y salida de vehículos.

c) Que la solicitud contenga de manera precisa el período de tiempo en el que se pretende se establezca el vado, ateniéndose a lo establecido en el artículo7 de esta Ordenanza.

d) Que se disponga de espacio suficiente conforme al artículo 8.º de esta Ordenanza, permanentemente libre y sin otros destinos, salvo cuando se trate de un vado vinculado a la carga y descarga del almacén de la actividad.

9.2. Garaje de vehículos:

a) Se entiende por actividad de garaje de vehículos toda aquella que tiene capacidad para tres o más.

b) Que disponga de licencia municipal de actividad para la instalación de guardería de vehículos, conforme al Decreto 165/99 de actividades exentas.

c) Que disponga de una superficie libre mínima para tres o más vehículos o furgonetas de carga inferior a 3.500 kg o para un camión de carga superior.

Será obligatoria la ocupación permanente del local con la capacidad máxima de vehículos.

d) Los garajes que dispongan de vado municipal con licencia de actividad de garaje o aparcamiento a la aprobación de esta Ordenanza, podrán solicitar vado conforme a sus necesidades siempre y cuando cumplan con lo establecido en esta Ordenanza y en la normativa que regula la seguridad.

9.3. En los casos no previstos en los artículos anteriores, podrán otorgarse vados de uso permanente u horario, previa solicitud del interesado, visto el Informe Técnico, atendiendo a la actividad desarrollada, la necesidad planteada, su emplazamiento y la excepcionalidad del caso. El otorgamiento será facultad de la Alcaldía o Junta de Gobierno en caso de delegación.

9.4. Guardería de vehículos en viviendas unifamiliares.

En el caso de viviendas unifamiliares se podrá eximir de la obligatoriedad de superficie libre mínima, pudiendo concederse licencia, cualquiera que sea la capacidad del garaje.

9.5. Guardería de vehículos en edificios del casco histórico.

Conforme al articulado de las NN.SS. de Zumaia, en general, no se admitirá el uso de garaje privado.

*Artículo 10.º*

El Ayuntamiento podrá conceder vados cuando se trate de Centros Oficiales y dependientes del Estado, Comunidad Autónoma, Provincia o Municipio, Entidades e Instituciones y Centros Sanitarios y Asistenciales, por razones de interés general y público que en cada caso concurran y previa solicitud de dichos organismos.

*Artículo 11.º*

La instancia solicitando licencia de vado se cursará acompañada de los siguientes documentos:

a) Justificante de poseer licencia municipal para dedicar el local al uso de que se trate.

b) Declaración del solicitante, comprometiéndose a no usar el local para otras actividades que las manifestadas en la instancia.

c) Eraikinaren kokaleku planoa, 1:500 eskalan.

d) Lokalaren planoa 1:1000 eskalan, hala balegokio, ibilgailuei destinatzen zaien espazioa eta honen azalera $m^2$tan argiro seinalatuz. Halaber, sarbideak eta bere ezaugarriak adieraziko dira.

e) Negoziorako lokala denean, beronen jardueren deskribapen labur bat aurkeztuko da, sartu eta irteten diren ibilgailuen batezbestekoa adieraziz.

f) Lokal guztiek bete beharko dituzte Legeak eskatutako segurtasun neurriak.

*12. artikulua.*

Ibi lizentziaren titularrak direnak, Udalaren baimena beharko dute, bertan edozein aldaketa egiteko.

*13. artikulua.*

Handitzeek eta lekualdaketek, lizentzia baten gai izango den aldaketa eratuko dute, bere lorpenerako beharrezko tramite eta baldintza guztiak bete beharko direlarik, bai eta eskubideengatiko tasen sortzapena ere.

*14. artikulua.*

Bere titularraren eskariz egindako ibi ezabapenak, behin hau burutu dela egiaztatu ondoren, deuseztapena gauzatuko du.

Era berean, urte batetan zehar ibi lizentziatik datozen eskubideen erabilera eza, deuseztapen kausa izango da.

Tasa bat ez ordaintzeak berau berehala erretiratzea suposatuko du.

*15. artikulua.*

Ibiak urtebeteko eperako emango dira eta epea berez luzatzen eta eguneratzen joango da, Udal Zerbitzuen aurkako txostenik ez dagoen bitartean edo ibiaren lizentzia eskuratzeko baldintzetakoren bat betetzen ez den bitartean.

Ibiaren lizentzia iraungitzen bada, Udaleko Zerbitzuek horren plaka adierazleak erretiratu egingo dituzte.

## III. TITULUA

## IBI INSTALAZIOEN BALDINTZAK

*16. artikulua.*

Ibi lizentzia lortu aurretik, eskatzaileak ondorengoa justifikatu beharko du:

a) Indarrean dagoen legezko Ordenantzak seinalatzen dituen eskubideak Udalari ordaindu izana.

b) Beharrezko kasuetan, zintarria beheratzeko eta ibia sendotzeko lanak bere kontura egin izana udal ikuskapenaren menpean.

c) Udal Zerbitzuetako txostena, trafiko eta aparkamendu beharrentzako elementu asaldatzaile bat ez dela justifikatuz.

*17. artikulua.*

Ibiak eraiki, aldatu edo ezabatzeko obrak, titular denak izendatutako pertsona aditu batek burutuko ditu, aldez aurretik lizentzia eskuratuz eta Udal Zerbitzuen oniritziarekin.

c) Plano de emplazamiento del edificio, a escala 1:500.

d) Plano del local a escala 1:1000, señalando, en su caso, claramente el espacio que se destina a los vehículos y la superficie en $m^2$ de este espacio. Asimismo se indicarán los accesos y sus características.

e) En el caso de local de negocio, se presentará además una breve descripción de las actividades del mismo, con indicación del promedio de vehículos que entran y salen.

f) Todos los locales deberán de cumplir con las medidas de seguridad exigidas por la ley.

*Artículo 12.º*

Los titulares de la licencia de vado tendrán que contar con autorización del Ayuntamiento para efectuar en el mismo cualquier modificación.

*Artículo 13.º*

Las ampliaciones y traslados constituirán modificación que deberá ser objeto de licencia, debiendo cumplir todos los trámites y requisitos necesarios para su obtención, incluso el devengo de tasas por derechos.

*Artículo 14.º*

Las supresiones por vados a instancia de su titular, y una vez comprobada su realización, dará lugar a la anulación.

Igualmente el no uso en el tiempo de un año, de los derechos dimanantes de la licencia de vado, será causa de anulación.

El impago de una tasa supondrá la retirada inmediata del mismo.

*Artículo 15.*

Los vados se concederán por el plazo de un año, que se irá prorrogando y actualizando automáticamente mientras no haya informe negativo de los Servicios Municipales, o se incumpla alguna de las condiciones para la obtención de la licencia de vado.

En caso de caducidad de la licencia de vado, se procederá por los Servicios Municipales a la retirada de las placas indicadoras de las mismas.

## TITULO III

## CONDICIONES DE LAS INSTALACIONES DE VADO

*Artículo 16.º*

Antes de obtener la licencia de vado el solicitante deberá justificar:

a) Haber satisfecho al Ayuntamiento los derechos que señala la Ordenanza legal vigente.

b) En los casos necesarios, haber realizado, a su costa, las obras de rebaje de bordillo y refuerzo de vado, bajo la inspección municipal.

c) Informe de los Servicios Municipales justificando no ser un elemento perturbador para las necesidades de tráfico y aparcamiento.

*Artículo 17.º*

Las obras para construir, modificar o suprimir vados, se realizarán por persona competente, designada por el titular, previa obtención de licencia y con el visto bueno de los Servicios Municipales.

Behin obrak osorik bukatu ondoren, Udal Zerbitzuei jakinaraziko zaie egindako lanen ikuskapena egin dezaten, bere aldeko txostenaren ondoren, titular denari ibiaren plaka adierazleak emango zaizkiolarik.

*18. artikulua.*

Ordenantza fiskalak izango dira urtero ezarriko dutenak ibi lizentziagatik ordaindu behar den kopurua.

Atal ezberdinak ezarri dira garajera sar daitezken ibilgailu kopuruaren arabera eta atal bakoitzean kopuru ezberdina kobratuko da:

— Hiru ibilgailu arte.

— Lautik hamar ibilgailura.

— Hamaikatik hogeita hamar ibilgailura.

— Hogeita hamarretik berrogeita hamar ibilgailura.

— Berrogeita hamarretik ehun ibilgailura.

— Ehun ibilgailutik gora.

## IV. TITULUA

## OBLIGAZIOAK ETA INFRAKZIOEI SANTZIOAK

*19. artikulua.*

Ibiaren titularra derrigorrez ondorengora obligaturik dago:

a) Zoladura eta disko adierazlea egoera egokian kontserbatzera.

b) Zoladura eta lizentziaren gainontzeko seinale edo adierazleak pintatzera.

c) Zoladura edo pintura berritzera, Udalak agintzen duenean.

d) Udalak agintzen dituen obra arrunta eta aparteko guztiak egitera ibian.

e) Espaloia eta zintarria bere hasierako egoeran uztera, emandako ibi lizentzia deuseztatu ondoren.

*20. artikulua.*

Ibi bat eraikitzen denean beharrezko baimena eskuratu gabe, Udalak horren titularra izatea dagokion pertsonari eskatuko dio espaloia bere aurreko egoeran jartzea, 15 eguneko epean eta bere kontura.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, ibiak Ordenantza honetan ezarritako baldintzak biltzen baditu, arauhausleak epe berean ibi lizentzia eskatu ahal izango du, bidezko diren Tasen bikoitzaren ordainketa egin ondoren.

Aipaturiko epea iragan eta lizentzia eskatu ez badu, ez eta espaloia bere aurreko egoerara birjarri ere, Udal Agintaritzak arau-hausteak dirauen egun bakoitzeko sei euroko isuna ezarriko dio arau-hausleari.

*21. artikulua.*

Ibi lizentziak automatikoki deuseztaturik geratuko dira Ordenantza honetan ezarritako obligazioren bat betetzen ez bada. Espresuki ondorengoak seinalatzen dira:

a) Zoladura edo pintura egoera egokian ez kontserbatzea.

b) Beronen erabilera eza edo erabilera desegokia.

c) Lokalak eskatutako edukiera ez edukitzea.

d) Lokala aitortutako helburuak ez direnetara destinatzea.

e) Emakida sortu zuten zirkunstantzien aldaketa.

Una vez finalizada completamente las obras, se dará cuenta a los Servicios Municipales para que realicen la inspección de los trabajos efectuados, tras cuyo informe favorable le serán entregadas al titular la placa distintivas de vado.

*Artículo 18.º*

Serán las Ordenanzas Fiscales las que establezcan cada año la cantidad a pagar por la licencia de vado.

Se establecen diferentes tramos según el número de vehículos que puedan acceder al garaje y cada tramo devengará una cantidad diferente:

— Hasta tres vehículos.

— De cuatro a diez.

— De once a treinta.

— De treinta a cincuenta.

— De cincuenta a cien.

— De más de cien.

## TITULO IV

## OBLIGACIONES Y SANCIONES A LAS INFRACCIONES

*Artículo 19.º*

El titular del vado está inexcusablemente obligado a:

a) Conservar en buen estado el pavimento y disco señalizador.

b) Pintar el pavimento y demás señales o indicativos de la licencia.

c) Renovar el pavimento o pintura, cuando lo ordene el Ayuntamiento.

d) Efectuar en el vado, cuantas obras ordinarias y extraordinarias ordene el Ayuntamiento.

e) Rehacer la acera y bordillo a su estado primitivo una vez se haya anulado la licencia de vado concedida.

*Artículo 20.º*

Cuando se construya un vado sin haber obtenido la correspondiente autorización, la persona a quien corresponda ser su titular será requerida por la Administración Municipal para que en el plazo de 15 días reponga, a su costa, la acera a su estado anterior.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, si el vado reúne las condiciones establecidas en esta Ordenanza, el infractor podrá solicitar en el plazo la licencia de vado, previo pago del doble de tasas que correspondan.

Transcurrido dicho plazo sin haber solicitado la licencia, ni repuesto la acera a su anterior estado, la Autoridad Municipal impondrá al infractor, tantas multas de seis euros cuantos días subsista la infracción.

*Artículo 21.º*

Las licencias de vado quedarán automáticamente anuladas por incumplimiento de cualquiera de las obligaciones impuestas en esta Ordenanza. Expresamente se señalarán las siguientes:

a) No conservar en perfecto estado el pavimento o la pintura.

b) No uso o uso indebido del mismo.

c) No tener el local la capacidad exigida.

d) Destinar el local a fines distintos a los declarados.

e) Modificación de las circunstancias que originaron la concesión.

*22. artikulua.*

Ordenantza honek biltzen dituen kasu guztietan eta beharrezkotzat hartzen direnetan, betearazte subsidiarioari ekin ahal izango zaio, espaloia hasierako egoeran jartzeko.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Materia honetan erregulatzaile diren Ordenantza honen aurreko udal xedapen guztiak indargabeturik geratzen dira eta deuseztatuta dauden ibien lizentzia guztiak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

*Lehenengoa.*

Ordenantza hau indarrean sartu baino lehen onartutako ibi guztiek tratamendu berezia izango dute, ondorengo kasu hauetan:

a) Garaje izateko eraikitako garajeak, 165/99 Dekretuaren araberako jarduera-lizentziarekin eta ibia dutenak: Hauen titularrek ibiaren lizentzia eska dezakete lokalaren azalera edozein izanda ere.

b) Garaje izateko eraikitako garajeak, 165/99 Dekretuaren araberako jarduera-lizentziarik gabe eta ibia dutenak: Hauen titularrek ibiarentzat lizentzia eska dezakete lokalaren azalera edozein izanda ere, baina aldez aurretik jarduera-lizentzia izapidetu beharko dute, Dekretu horretan ezarritakoaren arabera.

*Bigarrengoa.*

Gaur egun dauden ibien titularrak direnek, Ordenantza hau indarrean sartu denetik sei hilabeteko epearen barruan, ibia berritzeko eskaera egin beharko dute, eta arautegi honi loturik izapidetuko da. Arautegi honen ale bat emango zaio interesatu bakoitzari.

Eskaera hori ez aurkezteak aurrez emandako ibi-lizentzia automatikoki deuseztatzea suposatuko du.

Epe honetan bertan, partikularrek, behar bezala emandako ibiak ez direlako herritarren artean nahasketa sor dezaketen «aparkatzea debekatuta» jartzen duten seinale guztiak kendu beharko dituzte, eta horrela ez bada egiten, Udal zerbitzuek bidezko neurriak hartuko dituzte.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN bere argitalpen osoaren hurrengo egunetik hasi eta 15 lanegun iragan ondoren.

*Artículo 22.º*

En todos los casos que recoge esta Ordenanza y en cuantos se considere necesario, podrá procederse a la ejecución subsidiaria para el reestablecimiento del estado inicial de la acera.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas todas las disposiciones municipales anteriores a esta Ordenanza, reguladoras en esta materia y anuladas todas las licencias de vados existentes.

DISPOSICION TRANSITORIA

*Primera.*

Los vados otorgados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ordenanza, tendrán un tratamiento especial en los siguientes casos:

a) Garajes construidos como tales, con licencia de actividad conforme al Decreto 165/99 y que tengan vado: Sus titulares podrán solicitar licencia de vado independientemente de la superficie del local.

b) Garajes construidos como tales, sin licencia de actividad conforme al Decreto 165/99 y que tengan vado: Sus titulares podrán solicitar licencia de vado independientemente de la superficie del local, pero previamente deberán tramitar la licencia de actividad conforme a lo establecido en dicho Decreto.

*Segunda.*

Los titulares de los vados actualmente existentes deberán solicitar, dentro del plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de esta Ordenanza, la renovación del mismo, que se tramitará con sujeción a esta norma. Se entregará un ejemplar de esta normativa a cada interesado.

La no presentación de dicha solicitud, supondrá la anulación automática de la licencia de vado anteriormente otorgada.

En este mismo plazo los particulares deberán quitar todas las señales de «prohibido aparcar» que no siendo licencias de vados debidamente concedidas, pueden crear confusión en la población, en caso contrario los Servicios Municipales tomarán las medidas oportunas.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor transcurridos quince días hábiles a partir del siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.